AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

524

EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 21ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen zuzendari nagusiarena, zeinen bidez ebazten baita Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoan zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia.

Honako hauetan xedatutakoa aintzat hartuta: Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 47.3 artikulua; Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoan zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia iragarri zuen Osalaneko zuzendari nagusiaren 2013ko azaroaren 25eko Ebazpeneko laugarren oinarria; Aipatutako ebazpena aldatzen duen Osalaneko zuzendari nagusiaren 2014ko urtarrilaren 14ko Ebazpena, zeinen bidez zuzentzen baitira Osalaneko zuzendari nagusiaren 2013ko azaroaren 25eko Ebazpeneko hutsak, eta ebazpen horrek Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoan zuzendariorde teknikoaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia iragarri zuen. Guzti horiekin, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osalaneko Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde tekniko izendatzea Francisco Javier Inda Ortiz de Zárate jauna.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2014ko urtarrilaren 27tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; hortaz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio eman duen organoari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Barakaldo, 2014ko urtarrilaren 21a.

OSALANeko zuzendari nagusia,
IZASKUN URIEN AZPITARTE.